JARDUERA | 1. zk. | 2016ko ekaina

12-14 URTE

GENERO PAREKIDETASUNA

NESKA BERRIA DUGU GELAN

kaleidoskópio

OXFAM Intermón

Neska berria dugu gelan.

Benetan gertatutako historia da hau baina, hala ez bada ere, ezaguna gertatuko zaizue, seguru. Pasadizo honetako hainbat pertsonaia aurkeztu behar dizkizuet.

Neska-mutil horiekin hurrengo asteak lanean izango gara. Pertsonaia horietako bat neu naiz baina ez dizuet nire buruaren berri ezagutarazi nahi; hori, amaieran, zuek aurkitu beharko duzue. Gutariko bakoitzak kontatuko dizuegun istorioekin zuek ondo pasatzea da gure asmoa.



Ana

Ana eskola honetara iritsi berria da. Egiari zor, ikastetxez aldatzea ez du bat ere gogoko. Aurreko eskolan gustura zegoen, bere lagun, skate, musika eta gainontzekoekin. Orain, beste herri batean bizi delarik, irristatzeko leku berriak bilatu beharra, gelan sinpatiko paperak egin behar lagun berriak egiteko... Gogaikarria! Izan ere, gure amatxori etxez aldatzeko otu zitzaion eta...

Dani

Dani harriduraz harridura dabil: oraingo etxea eskerga da, erraldoia, badauka gela bat berarentzat bakarrik eta ispilu handi bat, bere dantza-pausuak zuzentzeko. Dantza eskolako neskek abegi ona egin diote Daniri, izan duten dantzaririk hoberena dela diote. Ez du arrebaren trabarik nozitzen, gustura dago, baina... aitaren falta sentitzen du. Batzuetan ez du ulertzen zergatik banandu ziren gurasoak.

María

Maria, Anaren ama, lantoki berrian hasi da. Urduri dago, oraingo hau betidanik izan nahi zuen lana delako baina, motoziklismoko probetako pilotu izatea ez da oso ohikoa. Kezkatuta dago Anagatik eta orain bizi dituzten aldaketa guztien ondorioengatik. Daniri aldiz, axolarik ez, nonbait. Alai eta zoriontsu bizi da!



Laia

Laia alai-alaia da. Bere ateraldiek lagunen barrea leherrarazten dute maiz. Gitarra ederki jotzen du eta abesti bat konposatu du, ikaskideek Deeyah delegatu aukera dezaten. Laiak dioenez, Gobernuburu izan beharko luke Deeyahek. Badaki gauzak ongi esplikatzen, oihu egin gabe hitz egiten du, ez da liskarzalea, eta gainerakoak ia denean konbentzitzea lortzen du gehienetan.

Angel

Angel erromantiko hutsa da. Ahal duen guztietan mezuak bidaltzen dizkio Paolari. Paola neska-laguna du, txiki-txikitatik. Gaur, ikasgelan Ana izeneko neska aurkeztu dute. Angel, txundituta, begirik ez dio kendu egun osoan. Neska hori ez da gainerakoak bezala: ile motza dauka, sudurrean uztaitxo bat, bota xelebreak... Tira, ez du arreta galdu nahi; delegatuen hauteskundetara aurkeztu nahi du eta bere proposamenak landu behar ditu orain.

Paola

Paolak idazle izan eta emakumeen eskubideen alde jardun nahi du. Deeyahek bere herrialdean emakumeei gertatzen zitzaiena kontatu zionean handik urte batzuetara, berak konponduko zuela erabaki zuen. Horretaz aitarekin solastatzen denean, adibidez, ezin du ulertu zergatik gizaseme batzuek emakumeak gaizki tratatzen dituzten. Aitak beti esan dio: “Bortizkeria besteren idealen beldurraren agerpena da”.

Deeyah

Deeyah, Laia eta Paola ezin apartatuzko lagun minak dira. Aukera dutenean, dena elkarrekin egiten dute: etxeko lanak, ibilaldiak, dena. Hasiera latza izan zen Deeyahentzat: bere herrialdetik ihesi joan zen bera baina amak handik irteteko aukerarik ez zuen izan. Laiaren bi amek etxean hartu zuten neska. Deeyahentzat dena berri-berria zen, eskolan, etxean, bere ama gabe baina bi amarekin...

Antonio eta Yu

Antonio eta Yu-ren arteko laguntasuna premiak sortu zuen. Batari eta besteari askaria lapurtzen zieten, eskola sartu aurretik. Erasotzaileak baino lasterrago izaten ikasi behar izan zuten. Zorionez, maiz gertatzen zena maistra batek ikusi eta konponbidea eman zion.

Antonio orain zeinahi kiroletan ederki aritzen da eta neskak atzean ditu beti: polit-polita dela eta halako batean kirolari ospetsua izango dela diote. Antonio, egia esateko, lotsatia da, ez du atsegin arreta-gunea izatea. Deeyahekin maiteminduta dago, hezur-muinetaraino, baina sekula ez dio horrelakorik esango, ez da ausartuko. Anaia zaharrak, konfiantzazko lagun izaki, gizon modura jokatzeko esaten dio Antoniori, ateratzeko eska diezaiola.

Yu Nikaraguatik etorri zen, Mitch urakana harrotu zenean. Yu ez da ezertaz oroitzen, orduan ume txikia zelako. Baina arreba zaharrek zehatz-mehatz gogoratzen dute dena, beldurrak ikaratuta. Ana ezagutu du Yuk eta, neskaren janzkera ikusirik, ezin sinetsita dabil: hori piura...! Amonak ikusi balu, neska zintzoak neurritasunez jantzi behar duela esango zuen. Barru-barruan, Yuk Ana eta anaia miresten ditu, diren bezala agertzeko ausartak baitira. Bera, berriz, kokildu egiten da...

"Martxoak 8" batzordea sortzea

Gelan batzordea sortu dute, martxoaren 8an, Emakumearen Nazioarteko Egunaren ospakizuna antolatzeko. Batzordekideak dira Paola, Laia, Deeyah, Ana, Dani, Antonio, Angel eta Yu. Ospakizuna "Berdintasun bideak" lema pean gorpuztuko da.

Batzordeak bilera egin du, egun horretan nolako jarduerak antola litezkeen erabakitzeko. Bileran, batzordekideen historia eta bizipen pertsonalen hariari tiraka, martxoaren 8a ospatzeko ideia batzuk sortu dira.



Martxoaren 8a, Emakumearen Nazioarteko Eguna

- Alor politiko, ekonomiko eta sozialean, emakumearen berdintasunaren aldeko borrokan erdietsitako lorpenak ospatzen dira egun horretan. Agenda feministan martxoaren 8a errebindikazio eguna da orobat, lortutakoa eta oraindik egiteko dagoena gogoratzen baita: soldaten arteko berdintasuna erdiestea, emakumearen kontrako bortizkeria deuseztatzea, eskolaratzeko neskato askok dituzten eragozpenak eraistea, zuzendaritza, politika edota lege-organoetan emakumeen presentzia ugaltzea...
- Sobietar Iraultzan eta Lehen Mundu Gerran egun hori aukeratu zen, emakumea tiranien aurka eta bakearen eta berdintasunaren aldeko jarrera har zezaten.
- 1977an, Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak Martxoaren 8a Emakumearen Eskubideen eta Bakearen Nazioarteko Eguna izendatu zuen.

JARDUERA*

Kontakizun honetako pertsonaia batzuek aurkeztuko dizkizueten egoera, jarduera eta ideiek lagunduko dizuete ikastetxean, zeuen martxoaren 8ko ospakizuna edo gizon eta emakumeen arteko berdintasuna erreibindikatzeko eguna prestatzen.

- Lehen ene lagunekin egin dudan bezala, orain, banan-banan, zeuen burua deskribatu eta zeuen autoerretratua egin dezazuen eskatuko dizuet. Hori egitea erraztuko dizue ondoko galde-sorta honek.

* Gida didaktikoan dituzue jarduera guztiak garatzeko orientabideak.

Zer da bizitzan gehien interesatzen zaidana? Markatu itzazu zuretzat garrantzitsuenak direnak eta, areago, idatzi beste batzuk ere.

- ☐ Dirua
- ☐ Ospea
- ☐ Prestigioa
- ☐ Segurtasuna
- ☐ Independentzia
- ☐ Sormena
- ☐ Altruismoa
- ☐ Elkartasuna
- ☐ Erlijiositatea
- ☐ Harreman pertsonalak
- ☐ Bizi-kalitatea

Nolako zaletasunak ditut? Marka ezazu zu hobekien definitzen zaituena.

- ☐ Jende askorekin harremanetan aritzea
- ☐ Txukuna izatea
- ☐ Egin behar dudana jakitea
- ☐ Jende gutxirekin harremanetan aritzea
- ☐ Naturarekiko kontaktuan bizitzea
- ☐ Talde bat antolatzea
- ☐ Hirian barna mugitzea
- ☐ Nire lana ongi egitea
- ☐ Ikertzea
- ☐ Inprobisatzea
- ☐ Besterik:

Nolakoa naiz ni?

- ☐ Lotsatia /ausarta
- ☐ Imajinazio handikoa/ arau zalea
- ☐ Lasaia/urduria
- ☐ Kementsua/ahula
- ☐ Segurua/zalantzatia
- ☐ Bizizalea/eszeptikoa
- ☐ Gogoetatsua/oldartsua
- ☐ Kritikoa/apatikoa
- ☐ Aktiboa/pasiboa
- ☐ Kontrolatzailea/axolagabea
- ☐ Besterik:

Nire ustez, egokia izan ninteke...

- ☐ Zuzentzeko
- ☐ Pentsatzeko
- ☐ Sortzeko
- ☐ Ikertzeko
- ☐ Taldekidea izateko
- ☐ Ikasteko
- ☐ Jendaurrean hitz egiteko
- ☐ Harreman sozialetarako
- ☐ Negoziatzeko
- ☐ Antolatzeko
- ☐ Elkarte-jardueretan aritzeko
- ☐ Arazo konplexuak konpontzeko
- ☐ Diseinatzeko
- ☐ Aitzindari izateko
- ☐ Kontu praktikoak konpontzeko
- ☐ Proiektuak imajinatzeko
- ☐ Komunikatzeko
- ☐ Idazteko
- ☐ Planifikatzeko
- ☐ Besterik:

Aipatu zure zaletasunak:

- ☐ Aire zabaleko jarduerak
- ☐ Kirol jarduerak
- ☐ Eskulanak
- ☐ Musika jarduerak
- ☐ Arte jarduerak
- ☐ Bildumak egitea
- ☐ Jarduera sozialak
- ☐ Zinema
- ☐ Irakurtzea
- ☐ Elkarteetan aritzea
- ☐ Besterik:

Hasteko, adibidez, honelako zerbait idatz dezakezue:

"Hitz batean, nolakoa naizen jakin nahi baduzue...".

Nolakoak garen, nola ikusten gaituzten

JARDUERA

Zure ustez, batzorde horretako kidea izan zintezke?

- Martxoaren 8ko ospakizuna antolatzen duen batzordeko kidea izateko, nolako ezaugarriak izan beharko zenituzke? Ba al dakizu benetan nolako ezaugarriak dituzun? Hasteko, geure burua banan-banan azalduko dugu:

1. Idatz itzazu ustez dituzun hiru ezaugarri positibo

2. Idatz itzazu ustez hobetu behar dituzun hiru ezaugarri.

3. Eska iezaiezu ikaskideei idatz ditzaten:

   > Zure hiru ezaugarri positibo.

   > Hobetu behar dituzun hiru ezaugarri.

4. Alderatu itzazu bi zerrendak. Ba al dago alderik zure pertzepzioaren eta besteek dutenaren artean?

JARDUERA

Biribila

Aurreko jarduera batean zeuen autoerretratua egin zenuten, zeuen burua nola ikusten duzuen adierazteko. Orain jakingo dugu zuen ikaskideek nola ikusten zaituzteten.

Jarri zaitezte zirkulu bat osatuz, papera eta arkatza hartuta. Idatzi zuen izena orriaren goialdean eta pasa iezaiozue eskuineko lagunari.

Ikaskide horrek, orria sinatu duen pertsonaren ezaugarri positibo bat idatzi eta, berehala, papera tolestu beharko du, idatzi duena beste inork ikus ez dezan; horrela eskuineko lagunari pasatuko dio, honek gauza bera egin dezan; horrela egingo du paperak buelta osoa, sinatu duenarengana itzuli arte.

Zer iruditu zaizkizue iruzkinak? Nola sentitu zarete?

Zerk harritu zaituzte gehien? Zergatik? Ezaugarri horiek zertan dira zuenen berdinak edo antzekoak?

Zertan bereizten dira?

Idatzi hemen zuen ondorioak:

Paolak bideo-foruma egitea proposatu du

Paolak helduaroan idazlea izan nahi du, emakumeen eskubideen alde jarduteko. Horretaz aitarekin hitz egiten duenean, adibidez, ezin du ulertu zergatik gizaseme batzuek emakumeak gaizki tratatzen dituzten. Aitak beti esan dio: "Bortizkeria besteren idealen beldurraren agerpena da".

Batzordearen bileran, Emakumearen Nazioarteko Egunerako, Paolak genero-estereotipoen inguruko video-forum bat egitea proposatu du. Bertan, film edo bideo laburrak proiektatuko lirateke eta, ondoren, partaide denen gogoetak emango luke amaiera.

JARDUERA

- Ba al dago, zuen iritziz, genero-estereotiporik zuen inguruan?
- Jorratu gai hau gelan eta apuntatu eztabaidak emaniko ondorioak. Ondoren, ateratako ondorioak denon artean partekatuko ditugu.

Genero-estereotipoak, gizonek eta emakumeek agertu behar duten jokaerez aurretiaz ditugun ideiak dira: batzuek eta besteek lanean, familian, alor publikoan bete behar dituzten rol edo eginkizunez eta, areago, beraien arteko harremanez ere.

JARDUERA

Orain, ondoko bideo horiek ikustea proposatuko dizuet. Ondoren, proposatu diren galderak aintzat hartuta, interesgarria izango da bideoak aztertzea.

- Ados al zaudete horrekin? Zergatik?
- Egiazkoak iruditzen zaizkizue? Zergatik?
- Estereotipo horiekin identifikaturik sentitzen zarete? Zergatik?



Zuen ikastetxean bideo-forum bat egitea ondo iruditzen al zaizue?

Apuntatu hemen gustura aztertuko zenituzketen bideoen zerrendatxo bat:

Danik proposatu duen jolasa



Oroitzen al zarete Danirekin, Anaren anaiarekin? Emozioz hunkituta dago, arrebak parte hartzen duen batzordeak eskatu diolako, martxoaren 8rako, gizon-emakume askok eskubideen berdintasuna lortzeko aurrera daramaten borroka omenduko duen koreografia presta dezan.

Danik berak esan digu bera eta arreba oso desberdinak direla. Anari skate eta rapa izugarri gustatzen zaizkio eta Daniri, berriz, balleta eta musika klasikoa. Amaren historia kontatu digute gaur:

Maria

"**Maria,** lan berrian hasi da aste honetan. Urduri dago, denek zeharka begiratzen diote. Motoziklismoko probetako pilotua emakumezkoa izatea ez da ohikoa. Maria oso gustura dago lanarekin, horixe egin nahi zuelako haurtzarotik. Gurasoei lan hori hasieran biziki arriskutsua eta emakumeentzako bat ere desegokia iruditu zitzaien arren, azkenean onartu egin zuten, Mariak motorrarekiko zeukan pasioa ezaguna zutelako. Lana erdiesteko, hori bai, mekanika ikasi behar izan zuen eta urte haietan bera zen hezkuntza-zentroko neska bakarra.

Mariak ederki daki zer den motorretako pilotu izan nahi duzula jendeak ez ulertzea; horrenbestez, inolako arazorik ez zuen izan semeak ballet klasikoa egin nahi zuela ulertzeko. Mariak ondo baino hobeto zekien semeari iseka egitea ez ziola inori onartuko eta semeari inoren beldurrik ez izaten irakatsiko ziola. Danik eta Mariak ederki dakite nor diren eta zer izan nahi duten..."

Zer iruditu zaizue Maria eta Daniren historia?

Talde txikiak osatuta, jorratu ezazue ondoko kontu hau: zure ahizpa edo arreba txikiak probetako pilotua izan nahi balu, edo Joseba zure lagun minak ballet klasikoko dantzari izan nahi balu, zer irudituko litzaizuke hori? Ulertuko al zenuke horien jarrera? Apuntatu koadroan zuen ondorioak.

Idatzi hemen zuen ondorioak:

Aulki-jokoa

JARDUERA

Joko bat proposatuko dizuet. Ipini bi aulki gelako aurrealdean. Batari ezarri "HONEN ALDE NAGO" dioen kartela eta bestean "EZ NAGO HONEN ALDE" dioena.

Kontua da gelako bi lagun aulki horietan eseri eta elkarren aurka eztabaidan jardutea: kontakizunean aurkezturiko egoeren alde jokatzeko argudioak dituena eseriko da batean, eta alde ez egiteko argudioak dituena, bestean. Hona aztergaia:

"Zure ahizpa edo arreba txikiak probetako pilotua izan nahi balu, zer egingo zenuke?"

Argudioren bat eman eta eztabaidan aurrera egin duzuelarik, aulkiak beste norbaitei utziko dizkiezue, horiek jarrai dezaten alde eta aurka. Ondoren, beste historia bateko korapiloarekin segi dezakezue:

"Joseba zure lagun minak, futbola utzi eta ballet klasikoan profesional jardun nahiko balu, zer egingo zenuke?"



Idatzi hemen zuen iradokizunak jokoaz

Joko honi esker, seguruenik zuenak ez bezalako pentsamendu eta jarrerak dituen beste norbaiten lekuan ipini zarete. Geure burua eta inguruko pertsonak hobeki ezagutzeak elkarrekin bizitzen lagunduko du.

Anak publizitatea aztertzea proposatu du

Hor gabiltza, martxoaren 8ko ospakizuna antolatzen. Gaurko bileran, matxismoaz hitz egitea proposatu du Anak. Hori egiteko, publizitatezko bideo batzuk bilatzea iradoki digu. Topatu dugun material horrekin, gure salaketazko bideoa osatuko dugu eta ikastetxean errebindikazio-egunean aurkeztuko dugu.

Publizitatezko iragarkiak aztertu nahi badituzue, lehen-lehenik, aukeratu iragarki batzuk. Ondoren, hemen azpian duzuen Andaluziako Publizitate Ez-sexistaren Behatokiaren Dekalogoa urratsez urrats errepasatzea proposatuko dizuet.

Andaluziako Publizitate Ez-sexistaren Behatokia

PUBLIZITATEAN SEXISMOA ATZEMATEKO DEKALOGOA // Sexista da honako ezaugarriak dituen publizitatea:

1. Genero bakoitzari tradizioz egotzitako jokabideak finkatzen dituen eredua sustatzen du.

Aldaketa sozialei eta emakume askok bizi dituzten errealitate berriei entzungorrena eginez, tradizioz genero bati edo besteari egotzi zaizkion rolak iraunarazten ditu.

2. Emakumearen edertasunari dagokionez, arrakastaren euskarritzat jotzen diren estandarrak finkatzen ditu.

Ginonezkoaren begiradatik eratutako iragarkiak, emakumeak gizartean arrakasta lortzeko aukerak edertasun-kanon jakin batzuk betetzera mugatzen dituztenak.

3. Produktu mota jakin batzuen bitartez, emakumezkoaren gorputzean presioa eragiten du.

Emakumearen funtsezko helburuak, eredu estetiko jakin batzuei egokitzera mugatzen dituzten iragarkiak. Horrelako iragarkietan emakumeak testuingurutik aterata agertzen dira, badirudi deus egiten ez dutela, hizketan gorputzaren zaintzaz bakarrik aritzen dira.

4. Emakumezkoaren gorputza, zuzendu beharreko akats multzotzat agertzen du.

Emakumearen gorputza eta beronek, adinean aurrera egitean, nozitzen dituen aldaketak, arazotzat agertzen ditu. Eta "arazo" horiek ezkutatu edo zuzendu behar dira.

5. Pertsonaia femeninoak azpikotasun eta menpekotasunean kokatzen ditu.

Horrelako iragarkiek emakumea agertzen du gizonezkoaren menpekotzat, bigarren mailan, borondaterik gabe, pasibo eta esaneko huts. Deigarria gertatzen da, modako erreportajeetan, modeloak menpeko, ahuspeztu edo belaunikaturik agertzea.

6. Garrantzi larriko erabaki ekonomikoetatik emakumea baztertzen du.

Iragarki horiek behin eta berriz iraunarazten dituzte genero bakoitzari egotziriko rolak. Emakumea autonomia ekonomikorik gabeko izakitzat hartuta, bigarren mailan uzten du alboraturik, munta ekonomiko handiko eragiketez erabakiak hartzean.

» PUBLIZITATEAN SEXISMOA ATZEMATEKO DEKALOGOA

Sexista da honako ezaugarriak dituen publizitatea:

7. Ospe sozial handiko eremuetatik emakumea urruntzen dute eta, gainera, senitartekoez eta etxeko lanez (elikadura, garbiketa...) arduratzea agintzen dio.

Iragarki horiek gizakien tradiziozko alor-banaketa iraunarazten dute: emakumeari alor pribatua (ospe onik ez duena) zaintzea agintzen diote eta gizasemeari, aldiz, alor publikoa, jakintza eta agintaritzakoa.

8. Emakumearen nahi eta desirak ukaturik, horiek gainerako pertsonen nahi eta desirei egokitzea "naturaltzat" erakusten du.

Gainontzekoek (seme-alabek, senarrak, amak, etab.) berarengandik espero dutenari erantzuten dion heinean, izakitzat errealizaturik dagoen emakumea agertzen dute iragarki horiek. Emakume hori etxez kanpo ere lanean badabil, den-denaz arduratu beharko da: superandrea da hori.

9. Emakume taldea agertzen du objektutzat, produktu jakin baten balio erantsitzat, haren bilgarritzat, hitz batez.

Horrelako iragarkiek, balizko bezeroaren begirada eta arreta erakartzeko xedez, emakumearen gorputza edo horren atal jakin batzuk (ezpainak, oinak, arropak) darabiltzate.

10 Emakumea, bere emozio eta erreakzioari eusteko gauza ez den gizakitzat agertzen du, harengan eragiten diren bortizkeriazko praktikak "zuritzeko".

Iragarki horiek emakumea gutiziek eraginda, jokabideetan zentzunik gabekotzat, ganoragabe, histeriko, hitzontzi... agertzen dute. Emakumeen tradiziozko agerpenean ohi-ohikoak diren jokabide-estereotipoetara jotzen dute, funtsean. Horrelako mezuetan emakumea barregarri agertzen da edo, bestela, zentzuna berreskuratzen du... gizonezkoak lagunduta.

» PUBLIZITATEAN SEXISMOA ATZEMATEKO DEKALOGOA

Sexista da honako ezaugarriak dituen publizitatea:

Bada bestelako publizitatea egiterik, noski...

- » "Emakumeaz" aritu ordez, "emakumeez" hitz egiten bada (gazte, zahar, polit, itsusi, alfer, langile, gizen, argal, etab.).
- » Genero-rolak sexuarekin loturik agertzeari uko egiten bazaio: sukaldean emakumeak askotan ikusten baditugu, azkenean, emakumearen "berezko" lekua sukaldea dela irudituko zaigu.
- » "Gizasemea" agertu ordez, gizonezkoak agertzen badira: aurrenekoaren emakumeaganako begirada sexual hutsa izaten da.
- » Gizonezkoak sukaldean naturaltasunez agertzen badira, eta ez, ordea, jaieguneko itsaskia prestatzen, emakumea laguntzaile hutsa izaki.
- » Mutikoei eta neskatoei egozten zaizkien eginkizunak elkarren kontrakoak ez badira.
- » Gizonen eta emakumeen artean agertzen diren harremanak sexuzko hutsak ez badira.
- » Gizon-emakumeen arteko harremanak laguntasun, elkartasun, elkarrenganako arreta eta laguntzazkoak badira, bai lanean, bai lanetik kanpo ere.
- » Gizonezkoen arteko hamaika motatako harremanak ere agertzen badira.
- » Geure herritar-eskubideen geroz eta emakume gehiago jabetzen bagara, horiek exijitzeko eta, areago, publizitatean ere errealitate bihurtzeko.
- » Gizonezkoaren laguntzarik gabe, zer lortu nahi duen, hori nola erdiets dezakeen eta bere bizitza kontrolatzen ondo dakien emakume irudi edo eredua hasten bagara sartzen, zabaltzen.
- » Emakumearen proiektu behinena edertasuna lortzea dela gizaki gehienok sinetsiko ez bagenu.

JARDUERA

Publizitate-azterketa egin duzuen honetan, Zerk harritu zaituzte gehien? Zergatik? Zer iruditu zaizkizue? Nolako ondorioak atera dituzue?

Idatzi hemen zuen eztabaidan ateratako ondorioak:

Antoniok eta Yuk eztabaida antolatu nahi dute

Gezurra badirudi ere, azkenean, Antonio eta Yu parte hartzera animatu dira. Bi lagun horien gaineko gauza batzuk kontatuko dizkizuet. Orain urte batzuk, Antoniok eta Yuk eskolako kide batzuen aldetik jazarpena nozitu zuten; azkenean, maistra bat horretaz konturaturik, hamaika elkarrizketa eta tutoretza eginik eta pertsona askoren lanari esker, egoerari amaiera eman zitzaion.

Jazarpen egoera batzuk ez dira konpontzen errazak, biktimek edo gertuko pertsonek egoera salatzen ez badute, batik bat. Maistrak, Antonio eta Yu nork eta zergatik jazartzen zituen jakin nahi bezain laster, errudunen argudioa

hauxe izan zen: oso sentsibleak zirelako, gay zirelako. Gelako beste ikaskideak horrekin ados ez zeuden arren, ez zuten arazoan inplikatu nahi, ezta ikaskideak jazartzen zituen taldeari kontra egitea ere, beraiei gauza bera gertatuko zitzaien beldur.

Yuk eta Antoniok, beren historian oinarriturik, martxoaren 8an eztabaida egitea proposatu dute, beraiei gertatu zitzaiena aztertzeko eta desberdintasunarekiko errespetua erreibindikatzeko. Martxan jarri nahi duten dinamikaren izena da "Antzeko egoera batean zer egingo zenuke?". Anima zaitezte zuek gelan horrelako zerbait egitera!

JARDUERA

Antola zaitezte taldeka. Landu nahi duzuen egoera irakurritakoan, talde batek jazarpen-egoera salatzearen aldeko arrazoiak eman beharko ditu eta beste taldeak, berriz, salatzearen aurkakoak.

Egoera hori, zuek bizi baduzue, salatzeari garrantzizkoa deritzozue? Protagonistek zergatik ez dute salatzen, zuen iritziz? Nori esan beharko liokete? Hori kontatzen badute, zer gerta daiteke? Besterik egin al dezakete?

1. kasua

Karlosen kasua

Karlos, zure ikaskidea, irainak nozitzen ari da tuit edo txioetan, Facebookeko mezuetan eta Instagramen, bera eta beste mutila besotik helduta paseoan ikusi zituztelako. Burumakur dabil, betilun, ez du eskolara etorri nahi. Oraintxe ikusi duzu blog berezi bat sortu dutela, egoera intimo larri edo zailetan Carlosi eginiko argazkiak ezartzeko. Haren gurasoek ez dakite deus horretaz eta, zuen ustez, irakasleek ere ez, baina hauetako batek txioren bat ikusia du.

2. kasua

Yolandaren kasua

Eskolako neska bat mutil batekin dabil aspaldi honetan. Harekin hasi denetik, bestelako jokabidea duela ikusi dute betiko lagunek: neskekin ez dabil ia inoiz, beste modu batez janzten da, etab. Dirudienez, mutil horri ez zaio gustatzen, bera aurrean ez denean, neska betiko lagunekin ibiltzea eta, ateratzen bada inoiz, mutilak jakin nahi du non den, norekin, zertan ari den... Neskaren orain arteko janzkera ere mutilak oso atsegin ez zuenez, “sexiago” (?) ager dadin konbentzitu du. Neskek, lagun minek, biziki aldatzen ari dela uste dute, mutil horrekiko harremanaren ondorioz, akaso. Neskarekin hitz egiten ahalegindu diren arren, kontua ez dago erraza...

Deeyahek erakusketa antolatzea proposatu du



Batzordeak eginiko bileran, berdintasunaren alde diharduten emakumeen testigantzaz hornituriko erakusketa antolatzea proposatu du Deeyahek.

Afganistanen jaio zen eta maitasun eta tristuraz gogoratzen da amak kontatzen zionaz, hots, aitonak semeak nahiago zituela alabak baino.

Amak, beraz doble jardun behar izan zuen, anaiek adina edo gehiago egiteko gauza zela frogatzeko. Nolanahi ere, senitartekoen sostengua izan zuen, horiek ikasteko animoak eman zizkiotelako. Ahaleginak loraturik, medikuntza herrialdeko hiriburuan, Kabulen ikastea lortu zuen. Hori, talibanek beren erregimena ezarri aurretik gertatu zen, emakumeek unibertsitate ikasketak eta kalean lan egiteko aukera zuten garaietan.

Talibanen erregimena indarrean denetik emakumearen eskubideak suntsitu egin dira: ikasteko, lanean aritzeko eskubidea eta, areago, familia bera ere galdu dute, erregimenaren kontra borrokatzeagatik

senar eta seme asko asasinaturik hil direlako. Emakume afganoek egoera latza bizi dute eta, horrela, haietariko askok prostituziora jo behar izan dute bizirik iraun edo herrialdetik irten ahal izateko.

Hori dena gertatu zenean, Deeyah ume txikia zen; kinka larrian, herrialdetik kanpora bizi ziren lagunekin bizitzera bidaltzea erabaki zuen amak.

Afganistanen eta beste herri askotan giza eta gizarte eskubideak –emakumearenak, bereziki– urratzen ari dira egunero. Horregatik proposatu nahi dizuet martxoaren 8ko ospakizunean, nor bere herrialdean, hainbat gauza lortzearen alde borrokan diharduten emakumeen testigantzak ezagutaraz ditzazuela.

JARDUERA

Taldeak osatuta, fitxa osatu eta eztabaida ezazue zeuen artean azpimarratuta dagoen esaldiaren esanahia

Karla Wheelock:

"Mendiak irakatsi dit, goraino iritsi nahi baduzu, zeuk oinez igo beharko duzula."

www.youtube.com/watch?v=03U-V8xENNNc&feature=youtu.be

Izena: Karla Wheelock

Jatorria:

.....

Zeren alde agertzen da?

.....

.....

Helarazten dituen funtsezko ideiak:

.....

.....

Marta Vieira da Silva:

"Ongi dakit ezinezkoa dela taldearen erdiarekin jokatzea."

https://www.youtube.com/watch?v=JTVR-4SxeTeg&feature=youtu.be

Izena: Marta Vieira da Silva

Jatorria:

.....

Zeren alde agertzen da?

.....

.....

Helarazten dituen funtsezko ideiak:

.....

.....

Emma Watson:

"Gizon eta emakumeek aukera berberak izan behar dituzte."

www.youtube.com/watch?v=xottL3J-naQw&feature=-youtu.be

Izena: Emma Watson

Jatorria:

.....

Zeren alde agertzen da?

.....

.....

Helarazten dituen funtsezko ideiak:

.....

.....

Gaur da martxoaren 8a, emakumearen nazioarteko eguna!

Orain dela urte batzuk gertatu zen hau guztia. Goxo-goxo oroitzen naiz oraindik jazarpenaz eta ziber-jazarpenaz egin genituen erakusketaz eta eztabaidaz. Orduan, matxismoa salatzeko bideoa ikustera gurasoak ere inbitatu genituen. Nola ahaztu egun hura! Ederra izan zen, azkenean Danik eginiko koreografiarekin dantzan egin genuen denok.

Historia luze hau kontatu dizuena ni naiz, Deeyah Khan. Horretan zeundeten ezta? Egun, mundu zabaleko emakumeen bizitzaren berri erakutsi eta giza

eskubideen urraketak eta gainerako bidegabekeriak salatzen dituzten dokumental eta filmak zuzentzen ditut.

Badakit oraingoan antolatu duzuela "Berdintasunerako bideak" zuen martxoaren 8ko ospakizunean; hori dela-eta, beste ahalegin bat eskatuko dizuet oraindik; larriena, agian: berdintasunerantz aurrera egiteko konpromisozko karta bat egin dezazuen, zuetariko bakoitzak, ikasle-irakasleok, sinatu ahal izango duena.

JARDUERA

Lehen-lehenik, irakurri arreta handiz ondoko galde-sorta hau eta egin gogoeta bertako aspektu bakoitzaz. Marka itzazue zuen gelan edo ikastetxean betetzen ez diren adierazleak:

Berdintasun adierazleak	Betetzen da	Ez da betetzen
Neska-mutilen arteko harremanak errespetuzkoak dira.		
Neskak eta mutilak modu berean tratatzen dituzte irakasleek: neskei zenbatetan, mutilei hainbatetan galdetzen zaie, nesken eta mutilen erdiespenak hein berean azpimarratzen dira, etab.		
Neskak eta mutilak hein berekotzat hartzen dituen mintzaira inklusiboa erabiltzen da.		
Neskak eta mutilak berdin-berdin aukeratzen dira karguetarako (gelako ordezkari, eskola-kontseiluko kide, etab.)		
Ez zaie erasotzen, ez iraindu edo trufa egiten ez mutilei, ez neskei.		
Nesken eta mutilen espazioa errespetatzen da (aldageletan, komunean, etab.).		
Eskolako edukietan emakumeen ezagutza eta eskarmentua baliatzen dira.		
Bizitza laboral, pertsonal eta familiarrean, sexuen arteko berdintasunezko harremanak jorratzen dira ikasgelan.		
Ez da egiten txiste matxista, homofobo edo arrazistarik.		

Jarraitu galdeketaren aurreko orrian

Berdintasun adierazleak	Betetzen da	Ez da betetzen
Neska-mutilak ez dira derrigortuak izaten jokabide probokatzaile edo sexualen bitartez.		
Ikasgairen batekin, kirolean edo harreman pertsonaletan arazorik duten neskei eta mutilei berdin-berdin laguntzen zaie.		
Ahaleginak egiten dira neska eta mutil guzti-guztiak bere gaitasun guztiak gara ditzaten eta aintzat joak senti daitezen.		
Taldea eremu segurua da, bertan neskek eta mutilek onarpen eta babesa senti dezaketelako.		
Segurtasun-falta larrien nozitzen duten neska eta mutilei lagundu egiten zaie.		
Neska eta mutilen arteko kooperazio eta laguntzazko harremanak sustatzen dira.		
Bertako aditze-giroak neska eta mutilen kontu pertsonalak planteatzeko aukera zabaldu egiten du.		
Beren imajina errespetatzen dela ikusten dute neskek eta mutilek: inork ez du inor zirikatuko bere itxura fisikoagatik, janzkeragatik, jokatzeko edo hitz egiteko moduagatik.		
Taldeak berdin-berdin balioztatzen ditu nesken eta mutilen ekarpenak.		
Nesken eta mutilen materiala errespetatzen da.		
Espazioak (jolastokiak, korridoreak, liburutegia, kafetegia...) berdin-berdin erabiltzen dituzte neskek eta mutilek.		
Maisuak eta maistrak berdin-berdin errespetatzen dituzte ikasleek.		

Jarraitu galdeketaren aurreko orrian

Berdintasun adierazleak	Betetzen da	Ez da betetzen
Mutilei eta neskei hizketa eten gabe aditzen zaie.		
Sexu bateko zein besteko ikaskideei erdiespenak lortzeko adorea berdin-berdin ematen zaie.		
Eskolako lanak (fotokopiak egitera joan, lanak koordinatzea, etab.) berdintasunez banatzen dira neska eta mutilen artean.		
Jokabide femeninoak eta maskulinoak errespetatzen eta baloratzen dira.		
Eskolara datozen neska eta mutilen gorabehera pertsonal eta familiarrak aintzat hartzen dira.		
Era informalean, bai neskei, bai mutilei interesatzen zaizkien gaiak aztertzen dira.		
Neska edo mutilen bati bidegabekeria bat egiten zaionean, haren alde ateratzen da taldea.		

JARDUERA

“Ez da betetzen” gelaxkan apuntatu dituzuen kontuekin konpromisozko karta hau idatziko dugu. Bertan, orain hasi eta ikasturte osoan egin beharko dituzuen aldaketak betetzeko konpromisoa hartzen duzue; aldaketa horiek aztertu beharko dituzue tutoretza, batzar edo gelako bileretan, aurrera egiten ari zareten ohartzeko.

Inprimatu eta ipin ezazue gelako toki ikusgarri batean, agerian. Karta horrek den-denoi gogorarazi beharko liguke berdintasuna egunez egun osatzen dela, xehetasun txikiez gorpuzten dela, eta den-denon konpromiso kolektiboak gauzak aldaraz ditzakeela, gizon eta emakumeen arteko berdintasun handiago baten mesedetan.

Berdintasunerako konpromisozko karta

Dokumentu hau sinatu dugunok konpromiso hauek hartzen ditugu:

»

»

»

»

»

»

»

»

Ikasle-irakasle guztien sinadurak.

kaleidoskópio

OXFAM Intermón